

III. ADITZ-IZENA (1)

III.1. ADITZ-IZENA: -T(Z)EA

- Gaztelaniazko infinitiboari forma diferenteak dagozkie euskaraz:

1. Nahi, behar eta ezin modalek partizipioa eramaten dute:

joan nahi dut	-	quiero ir
egin behar dut	-	lo tengo que hacer
ezin da hartu	-	no se puede coger

Denbora-esaldiek ere partizipioa erabiltzen dute:

joan baino lehen	-	antes de ir
egin ondoren	-	después de hacerlo
hartu eta gero	-	después de cogerlo

2. Ekintza adierazten duten **ari**, **hasi**, **jarraitu** eta horrelakoen aditz objektuek **-T(Z)EN** forma hartzen dute:

jolasten ari da	-	está jugando
jaten hasi da	-	ha empezado a comer

Trebetasuna adierazten duten **jakin**, **ikasi** eta horrelakoen objektua ere **-T(Z)EN** formakoa da:

Badakigu mendian ibiltzen	-	sabemos andar...
Ikasi dut makinaz idazten	-	he aprendido a escribir...

3. **-T(Z)EA** da, ordea, gaztelaniazko infinitiboaren ordainik normalena:

Gustatzen zaigu mendian ibiltzea	-	nos gusta andar...
Debekatua dago hemen erretzea	-	está prohibido fumar...
Pentsatu dugu kanpoan bazkaltzea	-	hemos pensado comer...

4. Aditz-izen honek, bestalde, deklinabide-atzizkiak hartzen ditu:
 -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)erik, -t(z)eari, -t(z)earen ...

ZER: Gutxiago jatea komeni zaizu
 Kirolari izatea gauza ona da
 Hortik sartzea debekatua dago
 Bakarrik ibiltzea gustatzen zaio
 Dendara joatea ahaztu zaie
 Hitz itsusiak esatea ez dago ondo
 Hori esatea ere!

Ibizara joatea erabaki dugu
 Zuekin ibiltzea atsegin dut
 Ardoa edatea debekatu dit sendagileak

Partitiboa: Ez dago hor sartzerik
 Ez dugu pentsatu hara joaterik

ZERK: Hori jateak ez dizu kalterik egingo
 Pixka bat ibiltzeak on egingo dizu
 Gehiegi hitz egiteak hondatzen zaitu

ZERTAZ: Pozten naiz zuek ikusteaz

5. Fíjate en los ejemplos de arriba cuáles son los verbos que llevan como sujeto o como objeto un nombre verbal -t(z)ea:

gustatu,
komeni,
ahaztu,
erabaki,
pentsatu,
debekatu,
ondo/gaizki egon,
gauza ona/txarra izan...

Gogoan izan:

-TEA: amaieran -n, -tzi, -tsi, -txi, -zi, -si, -ztu edo -stu dutenak.

Adbidez:	egin → egitea	utzi → uztea
	iritsi → iristea	itxi → ixtea
	hasi → hastea	hazi → haztea
	aberastu → aberastea	orraztu → orraztea

-TZEA: gainerako aditz guztiak.

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak, parentesi barruko aditza behar den forman erabiliz.

- | | |
|--|------------|
| 1. Datorren udan Suizara ... pentsatu du Inesek | (joan) |
| 2. Inori ez zaio goizegi ... gustatzen | (jaiki) |
| 3. Gazteek beharrezko dute kirolen bat ... | (egin) |
| 4. Bulegoan ... guztiz debekatua dago | (erre) |
| 5. Hobeto duzu gauzak astiro ... | (pentsatu) |
| 6. Pixa ... gogoaz zuen eta komunera joan da | (egin) |
| 7. Zertarako nahi duzu auto berria? Lagunei ... ? | (erakutsi) |
| 8. Atea da. Joan zaitetz, mesedez, zein den ... | (ikusi) |
| 9. Ai, janaria frigorifikoa ... ahaztu zait | (sartu) |
| 10. Ondo ibiltzeko, gehiago ... komeni zaizu | (ikasi) |
| 11. Beharrezkoa al da, bada, egunero ... ? | (irten) |
| 12. Hamar mila lanpostu ... ekarriko du erabaki horrek | (galdu) |
| 13. Lantegia ... ondorio gogorak izango ditu | (itxi) |
| 14. Gogorregi dago xerra hau, horrela ez dago ... | (jan) |
| 15. Nori ez zaio gauza atseginak ... gustatzen? | (entzun) |
| 16. Goizean asko ... komeni da | (jan) |
| 17. Gauean ez da asko ... behar | (jan) |
| 18. Prezioak horrela daudela, ez dago etxea ... | (erosi) |
| 19. Lo gutxiegi ... kalte egiten dio osasunari | (egin) |
| 20. Ondo al dago gezurrak ... ? | (esan) |
| 21. Banan-banan ... eskatu diet haurrei | (sartu) |
| 22. Saiatu gabe ez dago partidua ... | (irabazi) |
| 23. Gurasoen etxean ... erabaki dugu | (bazkaldu) |
| 24. Nori bururatu zaio gela berdez ... | (margotu) |
| 25. Zer egin behar da lasai ... ? | (bizi) |

- En algunas hablas el objeto del modal **nahi** no es el participio, sino el nombre verbal **-t(z)ea**:

Joatea nahi dut = quiero ir (yo mismo)

- En otras hablas, sin embargo, se establece esta diferencia:

joan nahi dut = quiero ir (yo mismo)

zu joatea nahi dut = quiero que tu vayas

Cuando el sujeto de ambos verbos es el mismo: participio

Cuando el sujeto que quiere y el de la acción es distinto: nombre verbal

2. Euskaratu:

1. No conviene hablar demasiado.
2. Está prohibido entrar ahí.
3. Tener amigos es bueno.
4. Me gusta pasear junto al mar.
5. El médico me ha prohibido hacer deporte.
6. No hay forma de abrir esa puerta.
7. Levantarse temprano no hace mal a nadie.
8. Ya tenía ganas de verte
9. ¿Es malo tomar el sol?
10. Han decidido abrir de diez de la mañana a diez de la noche.
11. ¿Tanto os cuesta hablar bien?
12. ¿Quién os ha mandado hacer eso?
13. Este año hemos decidido quedarnos en Bilbao.
14. Para dormir bien lo mejor es cenar poco.
15. ¿A quién se le ha ocurrido dejar ahí el coche?
16. A Carmen le gusta andar despacio.
17. Así no hay nada que hacer.
18. Le gusta nadar en la playa.
19. La nieve es necesaria para esquiar.
20. Beber demasiado es malo.





1 Bete itzazu hutsuneak, kontestua kontutan hartuta:

ITZULI BIHAR

—Iaz bukatu zituen Mirenek ikasketak, baina oraindik ez du lanik aurkitu eta, jakina, kezkatua dago. Zirt edo zart ... pentsatu du. Herriko lantegi guztietara ... esan diote lagunek, baina berak ez du uste beharrezkoa denik horrela ... Enplegu-bulegora ... egokiago dela pentsatzen du. Joan da, bada, enplegu-bulegora eta ilaran jarri da. Denbora luzean egon da zain. Azkenean, ordea, iritsi da leihatilara.

—Lanik gabe nago eta langabeen zerrendarako izena ... nator —esan dio bulegariari.

—Hainbeste kostatzen al da 'egun on' ... ? —galdetu dio haserre honek.

—Barkatu, egun on.

—Bete ezazu hau —esaten dio orduan bulegariak orri bat luzatuta—. Letra argiz ... komeni da. Alferrik baita, ez bada ondo ulertzen.

Astiro eta poliki bete du Mirenek orria. Datu guztiak garbi-garbi idatzi ditue-nean, itzuli egin dio bulegariari.

— ... ahaztu zaizu —esaten dio honek haserre.

—A, barkatu, oraintxe sinatuko dut.

Arretaz begiratzen du dena bulegariak.

—Ondo da —dio azkenean—. Utzidazu karneta, mesedez.

—Karneta behar al da? Ez daukat hemen.

—Nola? Karneta ... ahaztu zaizula? Orduan ezin dizut orria hartu. Joan zaitetz etxera karneta ... eta etorri berriz gero.

Etsita abiatu da Miren aterantz. Irtetera doanean, ordea, deitu egin dio bulegariak atzetik.

—Adizu, gazte, begiratu zer ordu den. Berandu da. Gaur ez duzu denborarik izango garaiz Itzuli zaitetz bihar.

ERDIAK LANGILE

Ikasketak amaitu zituenean lan bila hasi zen Gorka, normala denez. Artean ez zeukan garbi zer nahi zuen. Enpresa pribatua sartzea ez zen gauza erraza, baina are zailagoa zen funtzionari-postua aurkitzea. Pribatua diru gehiago irabazteko aukera izango zuen; funtzionari izanda, berriz, lanpostua segurua zeukan bizitza guztirako.

—Onena duzu nik bezala egitea —esaten zion osaba Ricardok—. Begira, hogeitortu daramatzat nik funtzionari eta ez zait damutzen. Prestatu ondo oposizioak eta ea suerteak laguntzen dizun.

Ondo pentsatuta, ez zebilen guztiz oker osaba Ricardo. Oposizioak gainditzen zaila zen, hori bai, jende asko aurkezten baitzen; baina saiatuta ez zuen ezer galduko eta oposizioko gaiak ikasten hasi zen Gorka.

Suerte handia izan zuen. Buruz zekizkien gaiak atera zitzaizkion eta ederki egin zituen ariketa guztiak.

—Zorionak, Gorka —deitu zion osabak pozik handik egun gutxira—, lortu duzu plaza! Oposizioetan lehena izan zara eta bulego eroso batera bidali zaituzte. Kultura ordezkartzan hasi behar duzu datorren astean.

Hitzik gabe geratu zen Gorka, pozaren pozez.

—Oso pozik nago, Gorka —jarraitu zuen osabak—. Izugarri poztu nau iloba batek nire pausuak jarraitu dituela ikusteak.

Aste batzuk igaro ziren. Gau batean Gorkaren etxean agertu zen osaba Ricardo, afaltzeko asmotan. Galdera asko egin zizkion ilobari lan berriari buruz. Osabak galdetu eta ilobak erantzun, luze aritu ziren hizketan.

—Eta —galdetu zion halako batean—, zenbat jendek egiten du lan zuen bulegoan?

—Gurean? —pentsakor geratu zen pixka batean iloba—. Erdiak edo....

a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

orduan	argi	modua	aurrena	ahalegindu
urrats	hara	isilik	pasatu	aprotatu

b. Erantzun:

1. Zer alde on dauka enpresa pribatua aritzeak? Eta publikoan aritzeak?
2. Beldur zen Gorka ez ote zituen oposizioak gaindituko. Zergatik?
3. Zergatik egin zituen ondo ariketa guztiak?
4. Oposizioak egin eta berehala hasi al zen lanean?
5. Plaza guztiak beharrezkoak al ziren haren bulegoan?

c. Testua jarraituz, amaitu ondoko elkarrizketa honetako esaldiak:

- Osabak: —Aste batzuk badira
- Ilobak: —Bai eta oso esan behar dut.
- Osabak: —Lan handia?
- Ilobak: —Bai, niri behintzat ez
- Osabak: —Eta zenbatek?
- Ilobak: —Lan egin? Erdiak baizik ez. Besteek.....